

IKUSEZINA

LAIDA MARTÍNEZ NAVARRO



giltza

periskopioa

IKUSEZINA

LIDA MARTÍNEZ NAVARRO

IKUSEZINA



© Laida Martínez Navarro, 2018

© Arg. Eusk.: Giltza, 2018
Zumalakarregi etorbidea, 54
48006 Bilbo
www.edebe.com

Bezeroen arreta: 902 44 44 41
kontaktatu@edebe.net

Bildumaren zuzendaria: Reina Duarte
Azalaren diseinua: Book & Look
Azaleko argazkia: Shutterstock

1. argitaraldia, 2018ko otsaila

ISBN: 978-84-8378-459-4
Lege-gordailua: B. 25976-2017
Espainian inprimatua
Printed in Spain
EGS - Rosario, 2 - Bartzelona

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos) (www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 45).

*Nire senar Iñigorentzat eta gure
alaba Martinarentzat.
Zuek gabe, ezer ez litzateke posible.*

1. Adi egoteak abantaila ematen dio deabruari

Isma, lau-begi, tximista bezain laster doa. Ur-putzuen gainetik salto egiten du, kalean gora arnasestuka korrika doala. Institutuko karpeta gogor estutu du. Bizkarran kolpeka darama motxila. Andoni, Kaskamotza, eta haren lagunak abantaila hartzen ari dira. Gero eta hurbilago entzuten ditu haien oihuak:

—Harrapatuko zaitugu, maritxu hori! —oihukatu diote.

Ismaelen zain egon dira klaseak amaitutakoan. Ismak ezin izan ditu saihestu. Beste egun batzuetan zorte handiagoa edukitzen du. Gaur, ordea, ez. Zientziako klasetik arin irten, eta eraikineko korridoreetan segundorik galdu gabe korrika egin duen arren, Kaskamotzak eta haren lagunek bidea gimnasiotik laburtu dutenez, Ismaren presak ez du ezertarako balio izan. Atzetik doazkio harrapatzera:

—Mesedez, otoitz, arren! —murmurikatu du Ismak, arnasestuka.

Beldurrak airean dago. Parkea zeharkatzen harrapatu zuten lehengo egunean. Ostikada pare bat eta bultzadak eman ondoren, motxila kendu eta ahateen

urmaelera bota zioten. Gero, karpetakoko apunte guztiak apurtu, eta betaurrekoak puskatu zizkioten.

—Ez korri egin lau-begi! Maritxu!

Berdin, arratsaldero. Ismaelek azkarrago egin du arineketan. Negarrik ez egiten saiatu da. Beldurrak ez du ezertarako balio. Gaur, behintzat, Alaitz, bere laguna, ez dago. Alaitz lodiegi dago eta ez du inoiz lortzen behar den bezala lasterka egitea, baina Alaitzen aita oso aberatsa denez, berarekin ez dira inoiz gehiegi pasatzen. Ismaelekin, bai.

—Egurra, Ismaela! —oihukatu diote—. Egurra daukagu zuretzat!

Isma, parkea alde batera utzita, ziztu bizian sartu da kalean. Handik bidea ziurragoa da, luzeagoa izan arren. Parkean txoko bakarti asko daude, eta errukirik gabe jipoitu dezakete bertan. Kalea, ordea, jendez beteta dago, Gaiztoek ez dute jipoituko.

—Ismaela, maritxu!

Buelta ematen du jendeak, ahalik eta lasterren dabilen mutil luzangari eta haren atzean doan taldeari begiratzeko. Sorbaldak jaso dituzte batzuek, saihesten saiatu dira besteak. Inork ez du tutik ere esan. Izkinara heltzean, semaforoa gorri dagoela konturatu da Isma. Arriskua hartu eta, bi aldiz pentsatu gabe, zeharkatu egin du galtzada. Balaztadak eta klaxon haserreak entzun dira.

—Begira ezazu nondik zabiltzan, mutil! —oihukatu dio gidari batek.

Harrituta geratu da andre pare bat. «Horiek gazte eroak!» esan dute. Ismak, hala eta guztiz, arnasa hartzeko segundo batzuk irabazi ditu. Abantaila txiki bat

atera die Kaskamotzari eta haren taldeari. Korrika jarraitu du, bihotz-taupada bizian. Hanketako giharretan sua dauka. Azken ahalegina. Etxeko ataria hortxe dago, aurrez aurre. Berrehun metrora, ehunera, berrogeita hamarrera. Lasterketa gelditu gabe, giltzak praktetako poltsikotik atera, eta otoitz egin du ataria lehenengoan irekitzeko. Izerdia dario bekokian behera eta lausotu egin zaizkio betaurrekoak. Eskuak ere izerditsu dauzka, dar-dar.

Sarraila zabaltzen saiatu da. Giltza labaindu, eta huts egin du. Berriro saiatu da. Eta berriro. Eta berriro. Atzetik datozkionen ahotsak oso hurbil entzun ditu.

—Jai duzu, lau begi, maritxu, nazkagarri horrek!

Azken unean, giltza sartu eta bira eman dio Ismak azkar. Bizkarreko motxila gainean esku bat nabaritu duenean, tirakada batez askatu, eta atarira sartu da. Danbada batez itxi du atea. Kanpotik begira ditu Gaiztoak. Kristalean kolpeak ematearekin batera, mehatxuka ari dira, isekaz:

—Harrapatu egingo zaitugu! —oihukatu dute—. Kar-kar-kar!

Barre egin dute, guztia txantxa bat balitz bezala. Ismarentzat batere graziaz ez duen txantxa.

2. Zerbitzutik kanpo

Ismael Arana naiz, hamasei urte ditut, eta batzuetan Likusezina izan nahi nuke, airean desagertu ahal izateko. Horixe pentsatu dut etxera noala. Bost solairuak oinez igo ditut, eskaileretan gora, igogailua orain dela egun batzuk matxuratu zelako, baina ez du inporta. Horri esker, lasaitzeko astia izan dut eta izerdia hoztu egin zait bekokian.

Eskailera ez da polita: zorua baldosa grisez estalita dago. Leku batzuetan hormak zahartuta daude eta orban ilunak dituzte etengailu elektronikoen inguruan eta txirrinen parean. Azaburu egosiaren usaina dago hirugarren solairuan; sardina frijituena, laugarrean. Eskudel higatuari helduta igo naiz, astiro, bosgarren solairura. Nire hanka mehe eta luzeak igoeraren erritmora moldatzen saiatu naiz. Bat, bi. Bat, bi. Poliki-poliki, baretu zait bihotza. Nire ate aurrera heltzean, gorantz bultzatu ditut betaurrekoak, sudurraren puntaraino labaintzen zaizkit eta. Sakon hartu dut arnasa, etxera sartu baino lehen.

—Kaixo, heldu naiz!

Sarrera ilunetik, sukaldeko atea ikusten da alde batean; bestean, etxera sartzen den korridorea. Egon-

gelako telebistaren zarata entzun dut: barre-algarak eta marrazki bizidunen musika. Niri entzutean, sukaldetik atera da amama. Amantal loredunean garbitu ditu eskuak. Emakume altua da, argala. Ile zuria garondoan, ondo egindako motots batean bilduta darama.

—Goiz heldu zara, laztana! —esan du.

Musu eman dit. Limoiaren, azukrearen eta esnearen usainak inguratu nau. Horixe da amamaren lurrina.

—Natillak egin ditut! Nahi dituzu?

Nire arreba Klaudia agertu da orduan, korridoretik korrika:

—Maelon, Maelon! —oihukatu eta besarkada handi bat eman dit.

Hamaika urte ditu, eta Santa Teresita Hezkuntza Bereziko Ikastetxean dabil. *Ismael* ahoskatzea kostatzen zaionez, eta amak eta amamak *Ismaelon* deitzen zidatenez txikitan, Klaudia «*Maelon*» esaten hasi zen. Eta izen horrekin geratu naiz. Gaur arratsaldean, Klaudiaren heroi bihurtuko naiz, *Bob Esponjaren* kromo batzuk ekarri dizkiot eta.

—Gauza bat daukat zuretzat... —esan diot.

Kilimak eginez, poltsikoak miatu dizkit, urduri. Nire aste-sariko azken hogeitazentimokoekin erositako lau kromoak topatu ditu bertan. Krisialdia hasi eta amak lana galdu zuenetik, (eta gero lortu zuen lana beste hiri batean dagoenez, alde egin behar izan zuenetik), hiru euro besterik ez didate ematen astero. Baina, krisialdia, Klaudiari, bost axola. Liluratuta geratu da koloretako kromoen aurrean. Behin eta berriz laztandu ditu, eta musu eman die, angelu guztietatik begiratu.

—Goazen! —esan diot—. Askaria hartzera!

«Hauxe dut bizimodua», pentsatu dut natillak jatean. Orain dela bost minutu, ero baten moduan ibili naiz korrika, Andoni eta haren taldekoengandik —institutuko Gaiztoengandik, alegia— ihes egiteko. Orain, sukaldeko mahaian jesarrita nago, natillak jaten koilarakada.

—Berriro harrapatzen banaute... —murmurikatu dut.

—Zer diozu, laztana? —galdetu dit amamak. Klaudiaren kokotsa sikatu du lauki zuri eta urdinak dituen ahozapi batez.

—Ezer ez! —gezurra esan dut. Gero, natillei begiratu ondoren... —. Badute banillarik eta kanelarik?

Chef batek egingo lituzkeen galderak egin dizkiot. Horixe izan nahi dut handia naizenean: munduko sukaldaririk onena. Jazarpenari buruz ez dut hitzik esan. Nik ahaztu egin nahi dut, eta amamak ez luke ulertuko. Ezin diot azaldu harrapatu egin nahi nautela ez naizelako haien gustukoa. Beste era batekoa naizelako. Horregatik bultzadak eman, eta irainak esaten dizkirate: maritxu, lau-begi, maritxu kirasdun, maritxu...

Negarrari eusten saiatu naiz.

—Zurbil zaude, gero! —amama arduratu egin da. Mahaiari heldu, eta aulkitik altxatu da. Klaudiaren kikara eta koilara harraskan utzi, eta zapi busti batez garbitu du formikazko gaina—. Ez zara gaixorik egongo, ezta?

—Ez, amama...

Nire inguruan ibili da jirabiraka. Bekokia ukitu dit sukarrik daukadan ikusteko. Ahal izan moduan eutsi diot, baina haserre nago. «Aspirina pare batekin edo

flasko bat antibiotikoarekin sendatuko balira nire arazoak!», pentsatu dut. «Sendagaien bitartez jazarleei irabaztea posible balitz!»

—Ai! —kexatu da amama—. Gaixotzen bazara, zure ama hain urrun egonda...!

Amari ez diot azalduko gaurkoa, jakina. Hasteko, haserretu egingo delako, eta ondoren, triste jarriko delako kanpoan dagoela ezin didalako lagundu. Gaixorik ezetz, nekatuta nagoela ziurtatu diot amamari:

—Korrika etorri naiz etxera —azaldu dut—. Eskolako lan asko ditut eta...

Amamak buruari eragin dio, hasperenka. Mahaia jasotzen jarraitu du. Lagundu egin diot, Klaudia kromoekin jolasten ari den bitartean, aulki batean jesarrita, oso pozik.

Hauxe besterik ez dakit: ni harrapatzen saiatzen diren bakoitzean, jipoitzen nauten bakoitzean, edo eraso egiten didatenean, zerbitzutik kanpo egon nahi nuke, igogailuari gertatzen zaion bezala. *Out of order*. Inork ez du zertan sufritu desberdina izateagatik. Horrexegatik bihurtu nahi nuke ikusezin.

Eskukada batez sikatu dut masailean behera erori zaidan malkoa. Negar egiteak ez duela ezertarako balio erabaki dut. Aurpegia biratu dut, amamak eta Klaudiak nire malkoak ikus ez ditzaten.

Nire logelara joan naiz segituan.

3. Alaitzen zapatako zola

Alaitzen *whatsapp*a ikusi du Ismak, logelara sartu orduko: *Nn zude? Instin ez zatut ikusi!!* Ismaren telefono-zenbakia Alaitzek baino ez du. Lehen Ismak beste mugikor bat zeukan, beste zenbaki batekin, baina Kaskamotzak zenbakia lortu zuenez, mezu iraingarriak, sekulakoak bidaltzen zizkion etengabe: «Ismaela, akatu egingo zaitugu»... «Presta zaitez, putakumea, lau-begi, maritxu»... «Ikusiko duzu zer daukagun zuretzat»... Ismak zenbakiz aldatu behar izan zuen mezuetatik ihes egiteko. Momentuz, badirudi neurri egokia izan zela hori, oraingoz ez baitu halako mezurik jaso.

Ismari ez zaio batere kostatu Alaitzi azaltzea zer gertatu den. Neskak ondotxo daki zer dagoen. *KaskM-tz inozoa!!*, erantzun du. Ez diote denbora gehiagorik eskaini gaiari. Haientzat ez da gauza berria. Errealitate desatsegina da. Erdi Aroko izurri bubonikoa bezalakoa. Kosta ahala kosta saihestu behar den gaitza.

Gero, eskolako lanak elkarrekin egiteko ados jarri direnez, Ismak liburuak atera ditu motxilatik, eta apunte batzuk, karpetatik. Amamari ez dio gezurrik esan: ariketa asko egin behar dituzte. Kontua da Ismak gustuko duela ikastea. Nahiko ikasle ona da. «Horrek

ere gogaitzen du Andoni. Ezjakin hutsa den memelo hori», pentsatu du Ismak, amorratuta.

Matematikako ariketa batzuei buruzko zalantzak galdetu dizkio Alaitzek. Literaturari buruz, Ismak neskari. Bata bestearen ondoan joan dira *whatsappak*. Eskolako lanak amaitutakoan, Alaitzek beste mezu bat bidali du: *Zrtan dute antz Andonik et nire zpatko zolak?*

Berehala tekleatu du Ismak: ???...

Hurrengo segundoan heldu da erantzuna: *Zak daude kkz beterik!!!* 😊 😊 😊...

Ismaren karkarak entzutean, barrea iman bat balitz bezala, Klaudia ate aurrean agertu da.

—Zertan ari zara duzu, Maelon?

Begi urdinak ditu, luzangak. Azal zuria, aurpegi zabala. Ez du Ismaren antzik. Ismak ile marroia du, kizkurra. Aurpegi argala, oreztaz betea; eta, betaurrekoen atzean, ezti-koloreko begiak. Klaudiak masaila laztandu dio nebari. Esku batean kromoak hartuta, mutilaren ondo-ondoan jarri da.

—Zenbakiak!— oihukatu du koadernoan ekuazio bat ikustean. Sudurra papereraino jaitsi du—. Nik asko dakizkit: bat, bi, hiru... —horiek esan ondoren, pentsatzen geratu da. —Sei, *zazpit*...

—«Zazpi» —zuzenketa egin dio Ismak—. «Zazpi» esaten da.

—Zu bai azkarra, Maelon! —barre egin du neskatilak; eta txinatarrei bezala jarri zaizkio begiak—. Azkar, azkarra!

Ohe gainean etzan da Ismaren arreba. Etxean bi logela daude. Klaudiak eta amamak batean egiten dute

lo. Ismaelek, bestean. Ama datorrenean, hilean behin, Ismaelen logelan geratzen da. Orain, ama ez dagoenez, bistan dagoen leku guztia bete dute mutilaren gauzek: liburuak eta apunteak han-hemen sakabanatuta daude, ohazal berde marraduneko ohe bikien gainean. Horma-armairuaren ateko ispiluan islatzen da logela. Urdin argiz pintatutako hormak, gau-mahaia, komoda eta idazmahai bat, Ismaren gauzaz estalia: institutuko motxila, mugikorra, ordenagailu zahar bat... Sukaldaritzari buruzko aldizkari pilo bat ere badago. Sukaldaritzatza da Ismaren grina. Horietako aldizkari bat hartu du Klaudiak. Azalari begiratu dio:

—Tarta! —esan du. Mugikorra seinalatu du gero—. Alaitz al da?

—Bai.

—Maite duut! —oihukatu du. Berehala hurbildu da—. Alaitz maitee! —errepikatu du aurpegia mahai gainean dagoen mugikorrera hurbilduz.

—*Whatsappez* ari gara eta ez dizu entzuten! —esan dio Ismak barrez. Gero, hauxe tekleatu du: *Klaudiak mite zitu*—. Listo, esan egin diot.

—Ondo! —Klaudiak, irribarrez—. Tarta bat egingo *niduzu?*

—«Didazu» esaten da —zuzendu dio mutilak—. Larunbatean egingo dizut.

—Larunbatean?

—Bihar ostirala da; eta, horren ondoren... Zer egun dator?

—Larunbata!

Saltoka atera da logelatik Klaudia: «Tarta, tarta...» errepikatuz.

Klaudiak hartutako aldizkariari begirada bat eman ondoren, Ismak berehala erabaki du bizkotxo bat egingo duela, esnegainez eta txokolatez beterikoa. Horixe izango da tarta perfektua Klaudia alaitzeko. Osagaietan pentsatzen dagoela, telefonoak jo du. Alaitz da, jakina. Ismak ez du beste lagunik...

—Andoni hori nazkagarri hutsa da... —bota du, Ismak erantzun bezain laster. Alaitz zerbait mastekatzeko ari dela nabaritu du mutilak. Marrubizko izozkia, pistatxoekin, azaldu dio Alaitzek Andoniz hitz egiten jarraitu baino lehen—. Mendeku hartu beharko zenuke!

—Ezta pentsatu ere! —beldurra jota dago Isma—. Desagertu, horixe da nahi dudana gauza bakarra. Nitaz paso egin dezatela. Ez nazatela ikusi.

Telefonoz bestaldean hasperen egin du Alaitzek. Askotan hitz egin dute gai horretaz. Teoria buruz dakite biek. Mila aldiz errepikatu diote elkarri baxua izateak (edo garaia, lodia edo betaurrekoduna) ez dela txarra. Denok desberdinak garelako. Parekorik ez dugulako! Erasoei aurre egin behar zaie! Eta kito! Teoria horri jarraituz, zerbait egin beharko luke Ismak. txarrena da teoria gauza bat dela eta praktika, beste bat. Isma zuloan sartuegi dago dauzkan arazoei aurre egiteko kapaz izateko. Izozia miazkatu eta gero, haginka egin dio kukurutxoari Alaitzek.

—Ezinezkoa da ezkutuka bizitzea. Ez da zilegi...

—Nork aipatu du zilegitasuna? —erantzun du Ismak, amorratuta—. Halakorik hemen ez dago.

—Ondotxo dakit! —ados agertu da neska. Gaileta kutxa bat zabaldu du—. Aitak berriro zigortu nau. A zer haserrea daukan nirekin!

—Zer egin duzu oraingoan?

—Nire soinketako kamiseta gorriak «bestearen» alkandora guztiak tindatu ditu.

«Bestea» Luisa da, Alaitzen amaordea. Oso txarto moldatzen dira. Alaitzi ez zaio batere gustatzen; beraz, gerra deklaratu dio. Gerra zikina, antza. Ene! Arropa tindatzea lortu du!

—Zure soinketako kamiseta? —galdetu dio Ismak, harrituta—. Gorria denez, eta zu beltzez bakarrik janzten zarenez, ikasturte osoan behin ere jantzi ez duzun hori? Irakasleari galdu egin zenuela ziurtatu zeniona?

—Kar-kar... —Alaitzek barre txiki bat egin, eta txokolatez estalitako gailera bat jan du—. Bada, begira, kamiseta garbigailuan agertu zen... Luisaren alkandoren ondoan. Kar-kar-kar!

—Eta zer esan dizu aitak?

—Betikoa: heldugabe hutsa naizela... Martxa honetan Luisak gorrotatu egingo nauela... Horrela ezin dudala jarraitu... —mastekatzeari utzi dio. Amorratuta dago—. Zigorra jarri dit, eta ezin izango naiz etxetik irten, institutura joateko baino. Horrez gain, aste-saririk gabe utzi nau hilabetez.

—Bueno, ez arduratu —kontsolatu du Ismak—. Nire hiru euroak dauzkagu, moldatuko gara...

—Bai zera! Litxarreriarik ez, arropa berririk ez, ezer ez... —laburtu du Alaitzek—. Hau desastrea! Eta dena babo horren erruz.

Bat-batean, burutazio batek animatu egin du:

—Eta diru pixka bat irabazten saiatzen bagara?
Ismak zalantza adierazi dio:

—Nola egingo dugu, bada?

—Merkatu txiki bat antola dezakegu —proposatu du neskak—, erabiltzen ez ditugun gauzekin...

Azazkal bat jan du Ismak:

—Ez dakit nik...

—Aizu, primerako ideia da! —segundo batean gogoa piztu zaio Alaitzi—. Traste pilo bat daukat logelan... Eta zuk pastel batzuk egin ditzakezu! Prezio onean salduko ditugu, ziur! Gainera...

Alaitzek hitz egiten jarraitu du. Liluratuta dago ideiarekin. O, bai! Bere traste batzuk primeran salduko dira institutuko merkatu txiki batean... Baita «bestearen» gauza batzuk ere, Alaitzen gauzekin ustekabeen edo nahasten badira.

Kar-kar-kar! Amaorde inozo horrek jai dauka!